

Euskal Hezkuntza Sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen.

FICOBA. Irun / 2023.09.30

LANBIDE HEZIKETAKO AZTERKETA.

Kideak: Julen Elgeta (HETEL), Ixaka Egurbide (Elgoibargo Makina Erreminta Institutua), Nekane Altzelai (IES Zubiri Manteo LH), Ana Eizagirre (UPV/EHU), Olatz Zinkunegi (UPV/EHU).

AZTERKETA ETA EZTABAIDAREN BERRERAIKUNTZA

I. Lanbide Heziketa Euskal Herrian.

Lanbide Heziketa esparruaren ezaugarri nagusiak zeintzuk izan daitezkeen identifikatzea komeni da lehenik eta behin. Esan beharra dago, elkarrizketa taldean parte hartu dugun kideak, guztiak, EAekoak garela eta, beraz, Nafarroako eta Iparraldeko datu zuzenik ezean, Autonomia Erkidegoko ikuspegitik eginiko hurbilpena dela honakoa. Berau osatu beharko litzateke, beraz, Nafarroako eta Iparraldeko datuekin.

- *Araubide propioa*: Gainerako hezkuntza esparruetan legez, honetan ere banaketa administratibo eta politikoak zuzenean eragin eta baldintzatzen du Lanbide Heziketaren araubidea eta, ondorioz, esparruak izan dezakeen garapena eta ibilbidea. Izan ere, Lanbide Heziketaren esparruaren mugak eta aukerak aztertzeko garaian Estatuetakoko legedi propioak hartu beharko ditugu aintzat eta, horrez gain, Autonomi Elkargo bakoitzak garatu duen araubidea, politika eta planifikazioa¹.
- *Izaera hibridoa*: Historikoki izaera hibridoa izan duen hezkuntza eta formazio esparrua izan da LH. Bere baitan hartzen ditu irakaskuntza arautua, Hezkuntza Ministeritzatik bideratua, eta, formazio ez-arautua, Lan Ministeritzatik zuzendua. Irakaskuntza arautuari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako esparruarekin egiten du bat eta, aldi berean ere, Bolonia ondorengo Europako Goi Mailako Heziketa Eremu bateratuko parte da unibertsitate mailako ikasketekin batera. Irakaskuntza ez arautuari dagokionez, pertsonak lanerako gaitzea eta beren gaitasunak bititza professional osoan eguneratzea du helburu.

¹ Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ezinbestez aipatu behar dira 4/2018 Legea, Ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa; eta jada martxan dago Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana.

- *Sarean lan egiteko kultura*: EAEko ezaugarri garrantzitsuenetako bat da ikastetxe pribatu zein publikoen arteko elkarlana; baita ikastetxe eta enpresen artekoa ere. Esan daiteke sarean lanean aritzeko kultura errotua dagoela LHan. Sarean eta elkarlanean aritzeko giltzarriak izan dira: Kontseilariordetza (eta horrekin batera Diputazioak eta Udalak), Tknika, ikastetxe desberdinak biltzen dituzten elkarteak, hots, IKASLAN, HETEL, AICE, etab., ikastetxeetako irakasleak, eta enpresak.
- *Ikastetxe/formazio aniztasuna*: goian aipaturiko hibridazioaren isla da Lanbide Heziketa esparruko formazioaren eskaintzan ikusten den aniztasuna. Batetik, badira propio Lanbide Heziketako ikastetxeak direnak, Zentro Integratu gisa izendatuak. Bestetik, Bigarren Hezkuntzako Institutuak daude, beren eskaintzaren barruan Lanbide Heziketa ere txertatuta dutenak. Horietaz gain, hainbat eta hainbat erakunde/ikastetxe aurkitu daiteke Lanbide Heziketa esparruko formakuntza espezifikoren bat eskaintzen dutenak (familia profesional batean edo ziklo konkreturen batean zentratuak). Ia bailara guztietan topatzen dugu LH eskaintza eta, zentzu horretan, hitz egin genezake sistema ireki eta, aldi berean, oso errotu batez. Noski, ikastetxearen tipologiak eragina izango du proiektuen garapenean.

II. Euskara eta Euskal Kultura Lanbide Heziketan.

Euskal Herria jomugan duen kohesioa egikaritzen joateko euskara eta euskal kultura ardatz nagusi gisa planteatu zaizkigu, eta ezin ukatuko dugu duten indarra. Besterik da, harremanak estutzeko, elkarlanean indarrak metatzeko garaian eraman daitezkeen dinamikak, prozesuak, ekintzak aztertzerakoan ezinbestekoa dugula zertaz ari garen adostea, bereziki euskal kulturaz ari garenean. Ildo horretatik oso oinarritzkoa den galdera planteatu dezakegu, zer da euskal kultura Lanbide Heziketan? zertan gorpuzten da?

Euskarari dagokionez, bestalde, ertz desberdinak dituen errealitatea jarri da mahaigainean:

- Batetik, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako mailekin konparatuz gero, bistan da euskarak askoz ere presentzia txikiagoa izan duela Lanbide Heziketan. Honek ez du esanahi, halere, euskararen aldeko ekinbiderik eta politikarik eman ez denik. Horren adibide da *Laneki* eta *Jakinbai* programen bitartez euskarazko irakaskuntza materialaren ekoizpen eta irakasleen arteko zabalkundean egin den lana. Era berean aipatu da azken urteetan hartu den neurria, zeinaren arabera ziklo berri guztiak euskaraz soilik eskaintzen diren.

- Nahiz euskarazko eskaintza egin, ordea, ikastetxe askotan zailtasunak daude matrikula betetzeko. Ikasle ugari zikloa gazteleraz egiteko hautua egiten du arrazoi ezberdinak medio: lan merkatua erdalduna delako edo etorkinak direlako eta ez dakitelako euskaraz, adibidez.
- Baileratan hain errotua egonik formazio hau, testuinguru soziolinguistikoak eta lan testuinguru hurbilak eragin handia dute ikasleen hizkuntza-hautuan. Aipatzen den kasu konkretu baten harira, planteatzen den kuestio bat zera da: euskarazko formazioa indartzeko ezinbestean lan esparruaren euskalduntzea beharrezkoa da, eta nola eragin daiteke LHko ikastetxeetatik lan merkatuaren euskalduntzean. Badaude adibide interesgarriak.
- Beste fokua, atzerritarren formakuntzan kokatzen da. Lan arlo batzuetan ez dago “hemengo” jenderik bertan lan egin nahi duenik eta ondorioz ikasle gehienak etorkinak dira. Honen inguruan zalantzak eta galderak sortzen dira: Formazio horiek gaztelaniaz egon beharko lukete? Ziklo berriak euskara hutsez eskaintzeak ze ondorio ekar ditzake maila honetan? Nola baliotu beharko lirake gaztelaniaz eman beharreko zikloak? Hauek dira komunitatean baitan sumatzen diren zalantza batzuk.

III. Kohesiorako giltzarri izan daitezkeen 3 esparru kritiko Lanbide Heziketan.

Partaide batek eginiko proposamenaren harira, hiru esparru aipatu dira egun Lanbide Heziketan kritikotzat hartu direnak, eta kohesioan pausuak emateko lagungarriak izan daitezkeen ardatz gisa aztertzeko mahairatuko genituzkeenak. Esparru hauek ardatz interesgarriak izan daitezke LH mailako barne-kohesio lana areagotzen joateko (intra-kohesioa esan genezakeena) eta baita hezkuntza mailen arteko kohesioan ere pausuak emateko (inter- kohesioa edo).

- o *Generoa*: titulazio asko oso maskulinizatuak daude, arlo teknologikoa kasu. Eta beste batzuk oso fenimizatuak. Genero arrakala oso nabarmen ageri da zikloetan eta hainbat proiektu jarri dira martxan honi aurre egiteko, adibidez, STEAM, edo Neskup!. Baina oraindik ez da tendentziaren aldaketarik somatzen.
- o *Hizkuntza*: EAEn ikasle gehienak D ereduan egin arren beren lehenengo ikasketak, LHra iristean oso portzentai txikiak egiten ditu bere ikasketak D ereduan. LHan gaztelania aukeratzen dute aurreikusten baitute gero lan merkaturatzean gazteleraz egin beharko dutela.
- o *Zaugarritasuna*: LH-tan eta bereziki Oinarrizko Lanbide Heziketan zaugarritasun egoeran dagoen ikasle ugari dago, gehienak etorkinak. Ikasle horientzat aukera bakarra da hezkuntza etapa hori egitea. Maiz ez dute beste aukerarik,

askorentzat gizarteratzeko bidegurutzea izanik. Hezkuntza Sistema propioaren eraikuntzan ezinbestekoa dirudi gai honi arreta berezia jartzea hezkuntza maila guztietan.

IV. Lanbide Heziketan jadanik dauden ekintza kohesionatzaileak.

Kohesiorako lagungarri diren edo izan diren ezaugarri gisa aipatu direnen artean honako bereizketa egingo genuke:

- Badaude *ezaugarri* batzuk *estrukturalak* direnak eta *potentzial kohesionatzailea* aitortu diegunak, adibidez, *matrikulaziorako askatasuna*. Lanbide Heziketako ziklo arautuetan ez dago lotura territorialik matrikulazio garaian; ez du inporta non jaio zaren nahi duzun ikastetxean matrikulatu ahal izateko. Honek lurraldeen arteko joan-etorria ahalbidetzen du, oso nabarmenki mugaren inguruko ikastetxeen artean. De facto, beraz, muga-ondoko ikastetxeen artean harremanak modu “naturalean” ematen direla esan dezakegu, zatiketa administratiboa gaindituz. Ziklo ez-arautuetan, aldiz, lan merkatuan dauden langile edo langabetuentzat direnez erkidegoko jendartearentzat bakarrik izan daiteke eskaintza, beste herrialdetakoak kanpoan geratzen direlarik. Gure helburuei begira planteatzen den gakoa zera da: nola egin mugaren inguruko ikastetxeen artean dagoen hartu-eman hori urrunago daudenetara zabaltzeko, hots, Araban edo Bizkaian dauden zentroetara.
- Beste adibide mota bat kontsidera dezakegu errekurtsio baten *erabilera kohesionatzailea*, adibidez ERASMUS programaren erabilera, hots, Praktikak lurraldetik kanpo egiteko aukera, ERASMUS baliatuz erabiltzen dena. Muga ondoan dauden ikastetxeen kasua jarri da horren adibide. Bertan, zikloetako praktikak iparraldean egiteko Erasmus programaz baliatzen dira, hori baita ikusten den bide bakarra, nahiz eta zenbaitetan praktikaldia egokitzeko zailtasunak egon badaude.
- Bestetik, identifika dezakegu gure kasuan *irakaskuntza-kultura baten indar kohesionatzailea*. EAEko Lanbide Heziketaren barruan dagoen sarean lan egiteko kulturaz ari gara, ikastetxe publikoak eta kontzertatuak biltzen dituen eta, enprekin batera, proiektu anitzetan elkarrekin lankidetzan aritzea ahalbidetzen duena. Indar kohesionatzaile handia aitortzen diogu ezaugarri honi eta planteatzen zaigun erroka da: nola baliatu errotua dagoen lan egiteko modu hori LHko lurralde kohesioari.
- Azkenik, *ekintza kohesionatzaileak* edukiko genituzke, zatiketa administratiboa gainditu eta elkarlana sustatzera propio zuzenduriko ekintzak liratekeenak. Gisa honetako hainbat proiektu aipatu dira, Akitania, Nafarroa eta EAE arteko elkarlanera bideratuak, hala nola: Pyrenees FP, Euskadi –Akitania /Poctefa proiektua, etab.

V. Lanbide Heziketan martxan jar litezkeen ekintza kohesionatzaileak.

Potentzial eta indar kohesionatzaile handia ikusten diogu EAEn sarean lan egiteko dagoen kulturari. Uste dugu askotan nahikoa dela elkarlanean eraikitako proiektu horietan kokka bat gehiago egitea, eta pentsatzea elkarlana beste lurraldeko ikastetxeekin gauzatu daitekeela. Batzuetan, mentalitate aldaketa bat besterik ez da izango, bestetan, baliabide edota egitura bat beharko da. Ez daukagu oso argi zein izan daitekeen kokka hori ematen lagun dezakeen egitura. Agian, Eusko Ikaskuntza bera?

Zentzu horretan, taldearen apustua jada martxan dauden lan lerroak aprobetxatzearen aldekoa izan da. Euskal Herrirako kohesioa helburu izanik, jauzi kualitatibo bat eman dezaketenak (*erabilera kohesionatzailean* eragin) baliatu genitzake, adibidez:

- o Enpresekin/agenteekin aliantzak herrialdez gaindi. LHn oso ohikoa da inguruko enpresekin elkarlanean aritzea. Hemen ere ezar daiteke EH ikuspegia norabide gisa eta saiatu muga gainditzen edota Nafarroarekin aliantzak indartzen.
- o Tknikak antolatutako jardunaldiak inspirazio iturri gisa hartuta, Euskal Herri mailako jardunaldiak/topaketa batzuen antolaketa bultzatzea. Arazo/gai/erronka/ konkretu baten inguruko topaketa batzuk antolatzea izan daiteke adibide bat, bertan ikastetxeen arteko harremanak sustatuko lirartekeen eta maila txikiagoan egiten diren proiektuak komunitate zabal batera hedatu.

VI. Azken ondorioak.

Lanbide Heziketak badu sartzeko gaitasun handia (EAEn batez ere), baina sare dinamika oso lokala da normalean, bailara mailan kasu askotan eta erkidegoaren mugen artean.

EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA etorkizuna elkarrekin lantzen

FICOPA. Irun | 2023.09.30

koEHSioa

Esparruari dagokion beste ezaugarri inportantea Komunitatearekiko duen harreman estua da, bai ikastetxe eta baita enpresekin ere. Gakoa da nola eman jauzi kualitatiboa Euskal Herri mailako dimentsioa bere barne hartzen joateko. Ez daukagu argi zein izan daitekeen prozedura/modua jauzi hori ematen lagunduko duena: bilgune bat? Erakunde bat? Elkarte bat? Eusko Ikaskuntza bera? Tknika? Hainbat erakunde edo instantziaren arteko elkarlana? Nola eragin EAE, Nafarroa eta Iparraldeko ikastetxeei horrelako ekintzetan parte hartzeko interesa pizteko? Horiek dira sortzen zaizkigun galdera mardulak. Administrazio desberdinen pean aritzeak eta legedi desberdinen baitan aritzeak dakartzan oztopoak saihesteko, bideragarriena litzateke administrazio publiko bakar baten menpe ez dagoen instantzia batetik bideratzea honelako prozesuak.

Hastapeneko apustua jada martxan dauden proiektu txikiei dimentsio kohesionatzaileagoa ematea bada ere, bistan da lagungarria dela plano desberdinetan jardutea, potentziala duten ezaugarri estrukturalen identifikazioan sakonduz, irakaskuntza-kultura mailan aldaketak sustatuz eta ekintza kohesionatzaileak diseinatuz.